Praktika bateratua / Bigarren modulua / 2011-2012 ikasturteko lehen lauhilekoa

Cristina Enea fundazioa, www.cristinaenea.org, Pierre Ducassek 1890 inguruan diseinatu zuen parketik hartzen du izena, eta bertako eraikinetan du egoitza Fernando Arizmendi arkitektoaren proiektua jarraituz eraberritu zirenetik. Eraikinen jatorrizko proiektua Jose Clemente de Osinalderi zor zaio, eraikin nagusia aurretik zegoen bati 1890ean egindako erreforma bat da, 1895 da sukalde-eraikina, 1896koa atezaintza, hesia 1897koa eta kapera 1906an eraiki zen, azken hau Domingo Eceizaren proiektuarekin.

Fundazio honek bere baitan hartzen ditu Ingurumen Baliabideen Zentrua eta Jasangarritasunaren Behatokia.

Gaia

Proiektuaren gaia Cristina Enea Fundazioarentzat areto bat hartuko duen pabiloi bat da, fundazioak antolatzen dituen hitzaldi eta antzeko jarduerak hartuko dituena.

Lorategi batean eraikitzen den pabiloia historikoki ezaguna den gaia da eta une honetan arrazoi ezberdinengatik da guretzat interesgarria. Pabiloiaren eskala ikasketa planaren bigarren modulu honetan landu behar dugun eskala domestikoaren barruan dago eta, aldi berean, erabilera publiko batera igarotzean neurri eta ahalmen handiagoko egitura eta espazioak lantzea ahalbidetzen digu. Bestetik, etxebizitza gaietan baino askatasun formal handiagoz lan egiteko aukera eskaintzen digu. Hortaz gain, eraikin parkean txertatu beharrak lekuaren baldintzekin aurrez aurre jartzen gaitu, azken honetara egokitu beharraren aurrean.

Programa

Hitzaldi-aretoak 300 bat m^2ko azalera izango du, eta bere forma, bai oin bai sekzioan, libreak izango dira. Ebazpena horizontala nahiz maldaduna izan liteke, ikuspegia eta besaulkien kokapena mesedetzen dituela uste bada. Bere barne garaiera aldakorra izan daiteke, beti ere 3,5 metroko erabilgarriaren gainetik. Zoru, horma eta sabaiek ez dute zertan derrigorrez bat etorri beharko egituraren kanpo formarekin.

Aretoa soto edo erdisoto batean egon daitekeen bezala, harrera-atseden edo foyer espazioek parkearen ikuspegiez goza lezakete. Azken hauen azalera ez dugu aurretik zehazten, eta areto nagusiarekiko modu ezberdinetan koka liteke – aurretik, inguratuz, tarteko sestra batean, e.a.

Erabilera osagarri gisa: komunak, 20 m^2ko pieza bana, 50 m^2ko biltegi bat aretoko altzariak eta bestelako materiala gordetzeko, eta hizlariaren erabilerarako 10 m^2ko bulego bat.

Kokapena

Hartu beharko den lehen erabakietako bat eraikin parkean hartuko duen lekua izango da. Beste hainbat erabakitan gertatzen den bezala, hau ez da beste faktoreetatik independentea, eta proiektuan eragiten duten beste zenbait aspektu hartuko beharko da kontutan, esate baterako, eraikinaren kokapenak bere formarengan eragingo du eta orientazioen araberakoa ere izango da). Orokorrean, eraikina bere inguru hurbilenera irmoki lotu beharko da eta bere diseinua hautatu den kokapenerako espezifikoa izango da.

Kokatzeko lau eremu proposatzen dira aukeran, haien artean bat hauta dadin. Eremurik garaiena jauregiaren eta kaperaren ingurua da, bi eraikinen artean osatzen duten espazio hutsaren hegoaldean. Erreferentzi sestra 27,5 da. Leku honetan kontutan hartzekoak dira eraikin berria eta zaharren arteko erlazioa, hiruren artean sortuko duten hutsunea eta hegoalderako ezponda dauden zuhaitz nagusien mantentzea (azken hauek kokatu egin beharko dira). Magal honen aldapa %8koa da goi aldean eta hegorantz handitzen doa.

Bigarren eremua aurrekoaren inguruan dago, eta zehaztugabeagoa da, trenbide eta ibai gaineko zubien artean eki-mende norabidean dagoen oinezko bidean. Bide honen hego-ertzak komunikazio onaren abantaila du (hego aldean du Mundaiz aldera ixten duen hesia), nahiz maldak eta zuhaiztiak asko baldintzatu.

Hiru eta laugarren eremuak parkearen mendebaleko ertzean daude, 4 eta 5 sestren artean, zuhaitz-arte banatan, Mundaiz kalearen muga egiten duen hormaren ondoan. Ordeka hautan kokapenak aukera irekiagoak ditu. Bertan dauden eraikin-hondarrak eta haur-jolasak erabili edo kendu egin daitezke. Ezinbestean eragingo duten elementuak aipaturiko horma eta atezaintza-eraikina izango dira.

Lan metodoa eta ebaluazioa.

Praktika bateratua lan honetan parte hartzen duten ikasgaietako bakoitzaren barne-ariketa gisa ulertu behar da eta, beraz, ikasgai bakoitzean modu independentean izango da baloratua, ikasle bakoitzaren taldeko irakasleak hain zuzen. Ebaluazio hau ikasgai bakoitzean lauhilekoaren hasieran ezarriko den irizpidearen arabera egingo da.

Praktikak bost ostiral hartuko ditu: irailak 23, urriak 14, azaroak 4 eta 25, abenduak 23. Ikasleak euren ikasgaietako taldeetan banatuko dira eta irakasleek ordutegi orokorrean finkaturik dauden orduetan hartuko dituzte.